



**OSAKIDETZA-EUSKAL OSASUN ZERBITZUAREN ADMINISTRAZIO-
KONTSEILUAK 2025EKO OTSAILAREN 11N IZANDAKO OHIKO
BILERAREN AKTA**

2025eko otsailaren 11ko 12:00etan, Eusko Jurlaritzan -Lakuan-, Gasteizko Donostia kaleko 1. zenbakian, eta Osakidetzaren Administrazio Kontseiluko presidentek deituta, hauek bildu dira: **Alberto Martínez Ruiz jauna**, Osasuneko sailburua eta kontseiluko presidentea; **Enrique Peiró Callizo jauna**, Osasuneko sailburuordea, **Miren Lorea Bilbao Artetxe andrea**, Osasun-administrazioko eta -finantzaketako sailburuordea, **José Enrique Corchón Álvarez jauna**, Eusko Jurlaritzako finantza- eta aurrekontu-sailburuordea eta **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jauna**, Aurrekontuen zuzendaria.

Kontseiluburuak *quorum* nahikoa dagoela egiaztatu du, azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuak – Osakidetza Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituenak– eta Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legeak ezarritakoaren arabera eta, horrenbestez, bertaratuek Osoko Bilkura eratu dute, kontseiluburuak deitutako bilera egiteko eta alde zuzenetik bidali zitzaizkien gai-zerrendako puntuak eztabaidatzeko. Osakidetzaren Estatutuen 8.3 artikuluan ezarritakoari jarraikiz, Administrazio Kontseilu honetara bertaratu dira, presidente jaunaren baimenarekin, ente publikoko zuzendari nagusia den **Susana López Altuna andrea** eta ente publikoko Aholkularitza Juridikoko zuzendariordea den **Maiteder Mielgo Rubio andrea** (idazkari gisa).

GAI-ZERRENDA

LEHENENGOA.– 2024ko abenduaren 17ko bilkurako akta irakurri eta onestea, hala badagokio.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute 2024ko abenduaren 17an egindako bileraren akta.

BIGARRENA. – Zerbitzu-erakundeetako egiturazko plantillari buruzko informazioa, 2024ko azaroaren 30ekoa eta 2024ko abenduaren 31koa.

Egiturazko plantillen onespeneraren osagarri gisa, Osakidetzako Administrazio Kontseiluaren 1998ko abenduaren 11ko Erabakiak arau arrunt batzuk ezartzen ditu, batetik, erakundeetan kudeaketa-eskuduntzak gauzatzea errazteko, eta, bestetik, ente publikoan pertsonalaren kudeaketak duen eragin ekonomikoaren kontrola eta jarraipena arintzeko.

Ondorio horietarako, aipatutako erabakian berariaz jasotzen da erakunde publikoko zuzendari nagusiaren ebazpen bidez onartu behar dela lanpostuak erakunde batzuetatik beste batzuetara fisikoki lekualdatzea. Lekualdatze horiek aldaketak eragiten dituzte plantilletan eta, ondorioz, haien berri eman beharko zaio Administrazio Kontseiluari, eta organo horrek berretsi egin beharko ditu. Zehazki, hilabetearen azken eguneko egoera jakinarazi beharko zaio.

2024ko urriko egiturazko plantillari buruzko txostena bidali zenetik, hainbat lanpostu aldatu izan dira aldian-aldian zerbitzu-erakunde batzuetatik besteetara, erakunde horiek asistentzia- eta kudeaketa-programak aurrera eramateko beharrezkoak dituzten giza baliabideez hornitze aldera. Beraz, berriazko araudian ezarritakoa betetzeko helburuz jakinarazi dira 2024ko urrian zerbitzu-erakunde bakoitzari atxikita zeuden langileen kopuruak lanbide-taldeen arabera eta aipatutako Gobernu Kontseiluaren Erabakiaren ondorioz eta **2024ko urritik 2024ko abenduaren 31ra bitartean** izandako lekualdatzeen ondorioz langileen esleipen horrek izan dituen aldaketak.

Konparazio-taulak gehitu dira akta honen I. eta II. eranskin gisa; horietan adierazi da 2024ko urritik 2024ko abenduaren 31ra erakunde bakoitzari atxikita zeuden lanbide-taldearen arabera langileen kopurua, bai eta langileen esleipen horrek izandako aldaketak ere.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute.

HIRUGARRENA.- Osakidetzaren antolamendu-beharren arabera, hizkuntza-eskakizunen derrigortasun-datak zehazteko erabaki-proposamena aurkeztea, Administrazio Kontseiluak onetsi dezan.

2022ko urtarrilaren 27an, Osakidetzako Administrazio Kontseiluak Osakidetzaren III. Euskararen Plana onetsi zuen, Osakidetzaren euskararen erabilera normalizatzeko 67/2003 Dekretuak

dioenari jarraituz. Planak Osakidetzan euskararen erabilera normalizatzeko helburuak, epeak eta jarduera-eremuak ezartzen ditu eta, era berean, aurrez adierazitakoaren arabera, derrigortasun-datak finkatzen ditu, Osakidetzako lehentasunezko unitateetako langile jakin batzuek beren eginkizunak betetzeko hizkuntza-eskakizuna egiaztatzeari dagokionez.

Euskara Planaren eguneratzeak memoriari erantsitako derrigortasun-data duten langileen zerrendari erantzuten dio. Bertan, esleitutako derrigortasun-datak eta kokapena deskribatzeko behar diren datuak ere adierazten dira, eta honako tipologia hau hartzen du:

- Derrigortasun-datak jartzea, aldatzea edo kentzea eta hizkuntza-eskakizunak aldatzea.

Aldaketak zerbitzu-erakundeen ekimenez proposatzen dira, beren jarduera-eremuan derrigortasun-daten gutxieneko ehunekoetara iristeko (Osakidetzaren III. Euskara Planean zehazten dira).

67/2003 Dekretuan eta Osakidetzaren III. Euskara Planean ezarritakoa betetzeko, Giza Baliabideen Zuzendaritzak kasu guztiei jakinarazi die –Euskara Zerbitzuaren txostena ikusi ondoren–, aipatutako arauetikiko egokitasuna eta aurreikusitako hizkuntza-normalizaziorako prozesuan izan beharreko inpaktua. Proposatzen diren aldaketek efektiboen hizkuntza-eskakizunari edo derrigortasun-datari eraginez gero, Eusko Jaurlaritzako Kultura Saileko Hizkuntza Politikarako Sailburuordetzak egoeraren berri eman die efektibo horiei.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onetsi dute aurkeztutako erabaki-proposamena.

LAUGARRENA. – Erabaki-proposamena; horren bidez, **IZENPE SA** ziurtapen- eta zerbitzu-enpresari ordezkari gisa sinatzeko ziurtagiri elektronikoko bat eskatzea baimentzen da eta, hala badagokio, onetsi egingo da.

Erakunde Zentrala, kudeaketako goi-mailako zuzendari gisa jarduten duen zuzendari nagusiaren bitartez, ordezkaritzan eskuduna den organoa da. Beraz, berak du administrazio elektronikoko zerbitzu komunak kudeatzeko eskumena, beste administrazio publiko batzuekin informazioa elektronikoki trukatzeko eta administrazio elektronikoko antzeko funtzioak gauzatzeko.

Erakunde Zentralak, egitura organikoa antolatzeko duen gaitasunarekin, Ekonomiako eta Finantzako Zuzendaritzaren mendekoa den Zerbitzu Estrategikoen Arloari agindu zion erregistro elektronikoro korreko eta administrazio elektronikoko zerbitzuak kudeatzea.

Horretarako, beharrezkoa da Zuzendaritza Nagusiaren Zerbitzu Estrategikoen Arloari baimena ematea, Osakidetzaren izenean, IZENPE SArI (ziurtapen- eta zerbitzu-enpresa) sinadura elektronikoen ziurtagiri bat eskatu diezaion zuzendaritza horri atxikitako langile publikoaren izenean erakundea ordezkatzeko. Ziurtagiri hori Osakidetzako baimendunak kudeatzeko erabiliko da administrazio publikoetako egoitza elektronikotako zerbitzuetan beharrezko izapideak egiteko.

Aurrekoan oinarrituz, Zuzendaritza Nagusiaren Zerbitzu Estrategikoen Arloari atxikitako langile publikoari, Jon Ramírez Gabiñari, baimena emango zaio Osakidetzaren izenean, IZENPE SArI (ziurtapen- eta zerbitzu-enpresa) sinadura elektronikoen ziurtagiri bat eskatu diezaion bere izenean eta Token USB formatuan. Ziurtagiri hori Osakidetzako baimendunak kudeatzeko erabiliko da administrazio publikoetako egoitza elektronikotako zerbitzuetan beharrezko izapideak egiteko.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dute.

BOSGARRENA.- Lanbide-garapenaren maila aitortzeko eskaerak ebazten dituzten Osakidetzako zuzendari nagusiaren ebazpenen aurka jarri diren gora jotzeko errekurso batzuei buruzko erabaki-proposamena aurkeztea, eta, hala badagokio, onartzea.

Gora jotzeko 108 errekurso jarri dira Osakidetzako zuzendari nagusiaren azaroaren 11ko 1523/2024 Ebazpenaren aurka (ebazpen horren bidez, lanbide-garapenaren maila aitortzeko eskaerak ebatzi ziren eta Osakidetzako zerbitzu-erakundeetako langileen lanbide-garapenaren mailaren behin betiko esleipena argitaratzeko agindu zen).

- Gora jotzeko 8 errekurso **onetsi** dira. Horietan, B multzoko merezimenduak berrikustea eskatzen zen, interesdunek eskatutako maila aitortzeko beharrezko gehieneko puntuazioa eskuratu baitzuten. Kalkulu horiek egiteko, kategoria hauetako graduondoko prestakuntzako, etengabeko prestakuntzako eta irakaskuntzako jardueretako curriculum-merezimenduak kontuan hartu dira:

- ✓ 3 errekurso B1 lanbide-taldekoak eta eskatutako I. mailakoak.

- ✓ 1 errekurtsu B1 lanbide-taldekua eta eskatutako II. mailakoa.
 - ✓ 1 errekurtsu B1 lanbide-taldekua eta eskatutako IV. mailakoa.
 - ✓ 1 errekurtsu C1 lanbide-taldekua eta eskatutako III. mailakoa.
 - ✓ 1 errekurtsu D1 lanbide-taldekua eta eskatutako III. mailakoa.
 - ✓ 1 errekurtsu E1 lanbide-taldekua eta eskatutako III. mailakoa.
- Gora jotzeko 100 errekurtsu **ezetsi** dira arrazoi hauengatik:
 - ✓ Gora jotzeko 2 errekurtsu **ezetsi** dira arrazoi hauengatik:
 - Errekurtsu bat ezetsi egin da, ez baititu betetzen aitortuta duen hurrengo garapen-maila lortzeko behar diren emandako zerbitzuak.
 - Errekurtsu bat ezetsi egin da, aurreko ebaluazio positibotik ez delako igaro ebaluazio berri bat eskatzeko ezarritako epea.
 - ✓ Gora jotzeko bi errekurtsu ezetsi dira, jada aitortuta zuten maila bat eskatu zutelako. B multzoko curriculum-merezimenduak berrikustea eta maila aitortzea eskatu zen. Hala eta guztiz ere, eskatutako maila jada aitortuta zuten akatsak zuzentzeko 1523/24 ebazpenaren bidez.
 - ✓ Gora jotzeko errekurtsu bat ezetsi da, ez dagokion maila bat eskatu zuelako. B multzoko curriculum-merezimenduak berrikustea eta eskuratu dezakeen maila gainditzen duen maila aitortzeko eskatu zen. Hala eta guztiz ere, errekurtsu hori ezetsi egingo da. Izan ere, sarbide-mailan egonik, bakarrik lanbide-garapeneko I. maila aitortzeko eskatu dezake.
 - ✓ Gora jotzeko sei errekurtsu ezetsi dira, arrazoi hauengatik ez dutelako betetzen A, B eta C multzoetako gutxieneko puntuazioa:
 - 1 errekurtsu A1 lanbide-taldekua eta eskatutako IV. mailakoa, C multzoko gutxieneko puntuazioa ez eskuratzearren.
 - 1 errekurtsu B1 lanbide-taldekua eta eskatutako III. mailakoa, A eta C multzoetako gutxieneko puntuazioa ez eskuratzearren.
 - 1 errekurtsu B1 lanbide-taldekua eta eskatutako III. mailakoa, C multzoko gutxieneko puntuazioa ez eskuratzearren.

- 1 errekurtsu B1 lanbide-taldekoa eta eskatutako III. mailakoa, A, B, eta C multzoetako gutxieneko puntuazioa ez eskuratzearren.
 - 1 errekurtsu D1 lanbide-taldekoa eta eskatutako II. mailakoa, A eta C multzoetako gutxieneko puntuazioa ez eskuratzearren.
 - 1 errekurtsu D2 lanbide-taldekoa eta eskatutako III. mailakoa, A eta C multzoetako gutxieneko puntuazioa ez eskuratzearren.
- ✓ Gora jotzeko 89 errekurtsu ezetsi dira. Horietan, B multzoko curriculum-merezimenduak berrikusteko eta dagokien kategoria profesionaleko maila aitortzeko eskatu zen. Errekurtsu horiek ezetsi egin dira, B multzoan eskatzen duten maila aitortzeko gutxieneko puntuazioa ez eskuratzearren. Errekurtsu horiek kategoria eta maila hauetakoak dira:
- 1 errekurtsu A1 lanbide-taldekoa eta I. mailakoa.
 - 2 errekurtsu A1 lanbide-taldekoa eta II. mailakoa.
 - 4 errekurtsu A1 lanbide-taldekoak eta III. mailakoak.
 - 8 errekurtsu B1 lanbide-taldekoa eta I. mailakoa.
 - 5 errekurtsu B1 lanbide-taldekoa eta II. mailakoa.
 - 14 errekurtsu B1 lanbide-taldekoak eta III. mailakoak.
 - 16 errekurtsu B1 lanbide-taldekoak eta IV. mailakoak.
 - 1 errekurtsu C1 lanbide-taldekoa eta I. mailakoa.
 - 4 errekurtsu C1 lanbide-taldekoa eta II. mailakoa.
 - 5 errekurtsu C1 lanbide-taldekoak eta III. mailakoak.
 - 4 errekurtsu C1 lanbide-taldekoak eta IV. mailakoak.
 - 2 errekurtsu D1 lanbide-taldekoa eta I. mailakoa.
 - 7 errekurtsu D1 lanbide-taldekoa eta II. mailakoa.
 - 7 errekurtsu D1 lanbide-taldekoak eta III. mailakoak.
 - 4 errekurtsu D1 lanbide-taldekoak eta IV. mailakoak.
 - 1 errekurtsu E1 lanbide-taldekoa eta I. mailakoa.
 - 1 errekurtsu E1 lanbide-taldekoa eta II. mailakoa.
 - 1 errekurtsu E1 lanbide-taldekoak eta III. mailakoak.
 - 2 errekurtsu D2 lanbide-taldekoak eta III. mailakoak.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dituzte aurkeztutako erabaki-proposamenak.

SEIGARRENA.- 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEaren esparruan, kategorietan / lanpostu funtzioaletan eskainitako destinoak argitara ematen dituzten Osakidetzako zuzendari nagusiaren ebazpenen aurka jarritako gora jotzeko errekurtoei buruzko erabaki-proposamenak.

Guztira gora jotzeko 3 errekurto jarri ziren 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEaren esparruan, kategorietan / lanpostu funtzioaletan eskainitako destinoak argitara ematen dituzten Osakidetzako zuzendari nagusiaren ebazpenen aurka.

Gora jotzeko 3 errekurto **ezetsi** dira honako arrazoi hauek direla-eta:

- ✓ Anestesiologiako eta Bizkorketako FEM kategoriako gora jotzeko errekurto bat ezetsi da.

Errekurtsoan aipatu zen eskainitako plazan (plazaren txanda zehaztearekin lotuta), plaza horri dagokion lanaldia deskribatzen da "2 Txanda G/A" moduan, eta guardiak zehazteari dagokionez, medikuaren lanpostuari lotuta daude. Errekurtsoa ezetsi da.

- ✓ Erradioterapiako Espezialista Teknikoaren kategoriari dagokion gora jotzeko errekurto bat ezetsi da.

Errekurtsoan aipatzen den Erradioterapiako Espezialista Teknikoaren kategoriari dagokion eskaintzaren inguruan (Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESiko Medikuntza Nuklearreko Unitateko destinoarena), aipatu beharra dago Osakidetzako medikuntza nuklearreko unitateetan badaudela unitate horietara atxikita dauden bi lanpostu (sartzeko titulazioarengatik eta 2019an ezarri ziren baliokidetasunengatik). Zehazki, hauek: Erradioterapiako teknikaria eta erradiodiagnostikoko teknikaria. Errekurtsoa ezetsi da.

- ✓ Bidezkoa da Ikerkuntza Unitateko FEMT kategoriari dagokion gora jotzeko errekurto bat ezestea.

Errekurtsoan aipatzen den plaza derrigortasun-datarik gabeko lekualdatze-lehiaketan eskaini zen. Plaza hori bete gabe geratu zen lekualdatze-lehiaketan, eta 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEan eskaini zen, derrigortasun-data

ezarrita. Hala eta guztiz ere, plaza hori lehiaketan eskaini zen ezaugarri berdinekin eskaini behar izan zen, hau da, derrigortasun-datarik gabe. Hala, dagozkion izapideak egin ondoren, akatsen zuzenketa egin zen, eta lanpostu hori derrigortasun-datarik gabe argitaratu zen. Errekurtsoa ezetsi da.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dituzte aurkeztutako erabaki-proposamenak.

ZAZPIGARRENA.- Hautaketako eta Horniketako Zuzendariordetzaren gora jotzeko errekurtsu batzuei buruzko erabaki-proposamenak egitea, izangaien behin betiko zerrendari, destinoen esleipenari eta 2018-2019ko EPEko eta 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEko esleipendunak estatutupeko langile finko izendatzeari buruzkoak, eta, hala badagokio, horiek onestea.

Gora jotzeko 3 errekurtsu aurkeztu ziren 2018-2019ko EPEaren eta 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEaren ebazpenen aurka:

- ✓ Gora jotzeko errekurtsu bat aurkeztu zen Osakidetzako zuzendari nagusiaren otsailaren 21eko 458/2024 ebazpenaren aurka. Horren bitartez, 2018-2019ko EPEko Fisioterapia kategoriako hautatutako hautagaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena argitaratu ziren. Errekurtsoan esperientzia profesionalean puntuazio handiagoa emateko eskatu zen. Errekurtsoa **onetsi** zen eta eskatutako esperientzia profesionala aitortu zen.
- ✓ Gora jotzeko errekurtsu bat aurkeztu zen Osakidetzaren Giza Baliabideen zuzendariaren ekainaren 5eko 1065/2024 ebazpenaren aurka. Horren bidez, 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEan Uribeko ESiko Optikan eta Optometriari Diplomadun kategorian eskaini ziren destinoak argitara eman ziren. Errekurtsoan zerrenda kentzeko eskatu zen, destino horiek lekualdatze-lehiaketan eskaintzeko.

Errekurtsoan alegatu ziren plazak, 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEan eskaini baino lehen, 2023ko lekualdatze-lehiaketa irekian eta iraunkorrean eskaini ziren eta ez ziren esleitu. Errekurtsogileak ezin izan zuten 2023ko lehiaketako ziklo horretan parte hartu, ez baitzuen lanpostu finkorik. Errekurtsoa **ezetsi** da.

- ✓ Gora jotzeko errekurtsio bat aurkeztu zen Osakidetzaren zuzendari nagusiaren abenduaren 30eko 1789/2024 ebazpenaren aurka. Horren bitartez, 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEan hautatutako hautagaien behin betiko zerrenda eta destinoen esleipena argitaratu ziren Bihotz Hodietako Kirurgiako FEM lanpostu funtzionalean. Errekurtsogileak eskatu zuen lanpostu funtzional horretako hautaketa-prozesuko izapidetzea eteteko.

Eskatutako etetea egingo balitz, alde batetik, interes orokorra larriki kaltetuko litzateke eta, beste alde batetik, destinoen esleipendunak kaltetuko lirateke, ez luketelako aukerarik izango destino horiek betetzeko. Eteteko eskaera **ezetsi** da.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dituzte aurkeztutako erabaki-proposamenak.

ZORTZIGARRENA.– Hautaketa eta Hornidurako Zuzendariordetzak Osakidetzako zuzendari nagusiaren 1510/2024 eta 1511/2024 ebazpenen aurka jarritako gora jotzeko errekurtsioei buruzko erabaki-proposamenak. Ebazpen horien bitartez, eta Euskal Autonomia Erkidegoko Justizia Auzitegi Nagusiaren 415/2024 Epaia egikaritzuz, aldatu egin ziren 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEa arautu behar duten oinarri orokorrak eta espezifikoko onesten dituzten ebazpenak.

9 gora jotzeko errekurtsio aurkeztu ziren Osakidetzaren zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1510/2024 Ebazpenaren aurka. Horren bidez, Osakidetzaren zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpena aldatu zen, eta azken horren bitartez onetsi ziren 20/21/22/egonkortze-prozesuan deitutako Osakidetzako estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuen oinarri orokorrak.

- ✓ Jarritako 9 errekurtsioak erizainen kategoriakoak izan ziren eta 1510/2024 ebazpena nulutzat deklaratzeko edo indargabetzeko eta 1737/22 ebazpenaren edukia berresteko eskatu zuten.

Gora jotzeko 9 errekurtsioak **ezetsi** dira. Izan ere, Osakidetzak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren irailaren 26ko 415/2024 Epaia egikaritu zuen eta 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEaren oinarri orokorrak aldatu zituen hautaketa-prozesu hori epaitzaren edukira egokitzeko. Gainera, aldaketa horrek

ez du hautagaien segurtasun juridikoan eragin, ez baitzegoen inolako mugarik hautaketa-prozesuaren faseetan eskainitako plaza guztiak hautatzeko eskubidea egikaritzeko, berbera izan baitzen segidan.

Gora jotzeko bi errekurso aurkeztu ziren: Lehenengoa Osakidetzaren zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1510/2024 Ebazpenaren aurka. Horren bidez, Osakidetzaren zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpena aldatu zen, eta azken horren bitartez onetsi ziren 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEan deitutako Osakidetzako estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuen oinarri orokorrak. Bigarren errekurtoa Osakidetzaren zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1511/2024 Ebazpenaren aurka aurkeztu zen. Horren bidez, Osakidetzako estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri espezifikoak onesten dituzten ebazpenak aldatu ziren.

- ✓ Aurkeztutako bi errekursoetan 1510/2024 eta 1511/2024 ebazpenak nulutzat deklaratzeko edo deuseztatze eskatu zen, baita aurretik argitaratu ziren oinarri orokorretan eta espezifikoetan ezarritako lan-esperientzia errespetatzeko ere, guztiak ere informatikako teknikari espezialistaren kategorian.

Gora jotzeko 2 errekursoak **ezetsi** dira. Izan ere, Osakidetzak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren irailaren 26ko 415/2024 Epaia egikaritu zuen eta 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEaren oinarri orokorrak eta espezifikoak aldatu zituen, hautaketa-prozesu hori epaitzaren edukira egokitzeko. Betearazpen horrekin, egonkortzeko EPERako emandako zerbitzuen balorazioa ezberdin egin behar da, Osakidetzan eta Osasunaren Sistema Nazionalean emandako zerbitzuak lehenesteko. Kontrara, ohiko EPERako, puntuazio berdinarekin barematu behar dira administrazio publiko guztietako osasun-zerbitzuetan emandako zerbitzuak.

Gora jotzeko errekurso bat aurkeztu zen: Errekurto hori hauen aurka jarri zen: Osakidetzaren zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1510/2024 Ebazpena. Horren bidez, Osakidetzaren zuzendari nagusiaren azaroaren 24ko 1736/2022 Ebazpena aldatu zen, eta azken horren bitartez onetsi ziren 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEan deitutako Osakidetzako estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuen oinarri orokorrak. Errekurritu zen bigarren ebazpena Osakidetzaren zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1511/2024 Ebazpena izan zen. Horren bidez, Osakidetzako estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuak arautzen dituzten oinarri espezifikoak onesten dituzten ebazpenak aldatu ziren.

- ✓ Jarritako errekurtsioan eskatu zuten 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEko hautaketa-prozesuan deitutako kategoria guztietan Osakidetzako estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesua indargabetzeko eta deitutako kategoria guztietan hautaketa-prozesuaren deialdi berri bat hasteko.

Gora jotzeko errekurtsioa **ezetsi** da. Izan ere, Osakidetzak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren irailaren 26ko 415/2024 Epaia egikaritu zuen eta 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEaren oinarri orokorrak eta espezifikoak aldatu zituen, hautaketa-prozesu hori epaitzaren edukira egokitzeko. Betearazpen horrekin, egonkortzeko EPERako emandako zerbitzuen balorazioa ezberdin egin behar da, Osakidetzan eta Osasunaren Sistema Nazionalean emandako zerbitzuak lehenesteko. Kontrara, ohiko EPERako, puntuazio berdinarekin barematu behar dira administrazio publiko guztietako osasun-zerbitzuetan emandako zerbitzuak.

Gora jotzeko bi errekurtsio aurkeztu ziren Osakidetzaren zuzendari nagusiaren azaroaren 7ko 1511/2024 Ebazpenaren aurka. Horren bidez, 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEan deitutako Osakidetzako kategoria guztietan estatutupeko lotura finkoa eskuratzeko hautaketa-prozesuen oinarri espezifikoak onesten dituzten ebazpenak aldatu ziren.

- ✓ Jarri zituzten gora jotzeko 2 errekurtsioak Kirurgia Plastiko, Estetiko eta Konpontzaileko FEM kategoriakoak dira. Bi errekurtsioetan alegatu zuten 1511/2024 Ebazpenak kategoria horretako destinoak gutxitu zituela, zehazki, 10etik 5era; guztiak ere sarbide orokorrekoak ziren eta ez zen erreserbarik egin desgaitasuna dutenen kuporako.

Gora jotzeko errekurtsioak **ezetsi** dira. Izan ere, Osakidetzak Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiaren irailaren 26ko 415/2024 Epaia egikaritu zuen eta 2020-2021-2022-Egonkortzeko EPEaren oinarri orokorrak eta espezifikoak aldatu zituen, hautaketa-prozesu hori epaitzaren edukira egokitzeko. Gainera, aldaketa horretan ez ziren gutxitu destino guztiak. Izan ere, Osakidetzaren zuzendari nagusiaren urtarrilaren 30eko 182/2023 Ebazpenaren bitartez, 1747/2022 Ebazpeneko akats materiala zuzendu zen. Azken horretan jartzen zuen txanda librean 5 destino deitu zirela, 5 sarbide orokorrekoak eta 5 desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kupokoak, baina jarri beharko luke txanda librean 5 destino deitzen zirela, 5 sarbide orokorrekoak eta 0 desgaitasuna duten pertsonentzako erreserba-kupokoak.

Errekurritutako ebazpenak ez zuen eskainitako plaza-kopurua aldatu, baizik eta Akatsak zuzentzeko ekainaren 30eko 182/2023 Ebazpeneko plaza-kopurua errepikatu zuen.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen duten kideek aho batez onetsi dituzte aurkeztutako erabaki-proposamenak.

BEDERATZIGARRENA.- Osakidetzako Bihotzeko Kirurgiaren Kudeaketa Klinikoko Unitatea sortzeko erabaki-proposamena egitea eta, hala badagokio, onestea.

Osakidetza Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuaren 16. artikulua hau dio Kudeaketa Klinikoen helburuari buruz: *“Osakidetza Ente Publikoaren osasun-zerbitzuetako erakundeek mailakatuta hartuko dute kudeaketa beren zerbitzu eta laguntza-unitateetan, zuzendaritza-funtzio klinikoak eta kudeatzaileak integratzeko helburuarekin”.*

Kudeaketa Klinikoko Unitatearen antolaketa-egitura honela konfiguratzeko da: ez du nortasun juridiko propioa, baina jarduera klinikoaren garapenean erabilitako baliabideen kudeaketa profesionalak sartzeko aukera ematen du, jarduera kliniko horri esleitutako giza baliabide eta baliabide material guztiak batuz, praktika kliniko integratuko ereduarekin bat datozen zerbitzu sanitarioak eskaintzeko.

Osakidetza ente publikoaren erakunde sanitario integratuei buruzko uztailaren 3ko 100/2018 Dekretuaren 30. artikuluan xedatzen da Osakidetzaren Administrazio Kontseiluak erabakiko duela ospitaleko zerbitzuak sortzea, aldatzea edo kentzea eta, horretarako, Osasun-zentro, -zerbitzu eta -establezimenduak baimentzeari buruzko otsailaren 21eko 31/2006 Dekretuan xedatutako baimenak beharko direla. Prozedura hori aplikatu behar zaio Kudeaketa Klinikoko Unitatea sortzeko prozesuari, osasun-zerbitzu baten goi-mailako egitura baita.

Kudeaketa Klinikoko Unitate bat sortzeko, zorrozkiki bete beharko da hauek guztiak aurreikusten dituen prozedura: negoziazioa Osasuneko Mahai Sektorial batean egitea, unitatea sortzearen eraginpeko zuzendaritza-gerentziak (edo zuzendaritza-gerentziek) proposamena egitea, proposamen hori Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiak onestea eta Osakidetzako Administrazio Kontseiluak onartzea.

Aurreko guztiarengatik, Bilbo-Basurtuko eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlen zuzendaritza-gerentziek Bihotzeko Kirurgiaren Kudeaketa Klinikoko Unitatea eratzeko egindako

eta Osakidetzaren zuzendari nagusiak aurkeztutako eskaria ikusita Osasuneko Mahai Sektorialean negoziatu eta onetsi eta gero, eta praktika kliniko integratuaren eredu aurrera egiteko helburuarekin, Bilbo-Basurtuko eta Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESlen Bihotzeko Kirurgiaren Kudeaketa Klinikoko Unitatea eratzea erabaki da, Osakidetza Ente Publikoaren Estatutuak ezartzen dituen azaroaren 11ko 255/1997 Dekretuarekin bat etorriz. Modu horretan, eratuko den Kudeaketa Klinikoko Unitatea osatuko duten zerbitzuen jarduerak indartu nahi dira, osasun-emaitzak, zerbitzuen erabiltzaileen gogobetetasuna, efizientzia kliniko, teknologien erabilera eta giza baliabideen erabilera zuzena hobetzeko.

Eratuko den Kudeaketa Klinikoko Unitateak erakunde bietako bihotzeko kirurgia-zerbitzuetako baliabideak eta profesionalak barne hartuko ditu, bere jarduera eta bihotzeko kirurgiako asistentzia sanitarioa praktika kliniko integratuaren ereduarekin bat etorriz emateko, eraginkorki eta denbora egokian. Hala, jarduketak autonomia, efikazia, efizientzia eta zerbitzu-kalitatearen printzipioetan oinarrituko dira eta bi egoitza izango ditu:

- Bilbo-Basurtuko ESla, Basurtuko Unibertsitate Ospitalea.
- Ezkerralde-Enkarterri-Gurutzetako ESla, Gurutzetako Unibertsitate Ospitalea.

Bihotzeko Kirurgiaren Kudeaketa Klinikoko Unitatea Osakidetzaren Zuzendaritza Nagusiaren mende egongo da, bai organikoki, bai funtzionalki. Unitatearen burua Zuzendaritza Nagusiak izendatuko duen Kudeaketa Klinikoko Unitateko arduraduna izango da.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onesten dute aurkeztutako erabaki-proposamena.

HAMARGARRENA.– Informazioa eta galde-eskeak.

Lehenengoa.– Osatek SAren zuzendari-gerentearen kargu-uztearen erabaki-proposamena.

2025eko otsailaren 11ko bileran Osakidetzaren Administrazio Kontseilua osatzen duten guztiak bertan daudela, erabaki da Osatek SAren zuzendari-gerentearen kargu-uztearen erabaki-proposamena sartzea, Sektore publikoaren araubide juridikoaren urriaren 1eko 40/2015 Legearen 17.4 artikuluan xedatutakoa betez.

Osatek SAren zuzendari-gerentearen kargu-uztea onartu da eta izendatu zenetik egindako lanarengatik eskerrak eman zaizkio.

ERABAKIA: Administrazio Kontseilua osatzen dutenek aho batez onesten dute aurkeztutako erabaki-proposamena.

Bigarrena.- Galde-eskeak.

2025eko abenduaren 17an egin zen Osakidetzaren Administrazio Kontseiluaren aurreko proposamenarekin lotuta (Transfusio eta Giza Ehunen Euskal Zentroa-Gipuzkoa Fundazioari eta Arabako Emaleen Elkarteari barne-ikuskaritza bat egitea), Osasun sailburuak, **Alberto Martínez Ruíz jaunak**, galdetu du zein kudeaketa egin diren OCEk ikuskaritza hori egin dezan.

Aurrekontuen zuzendariak, **Josu Iñaki Garay Ibáñez de Elejalde jaunak**, azaldu du OCEri galdetu zitzaiola ea aukerarik ote zegoen ikuskaritza beraiekin egiteko, baina esan du ez duela argi ikusten beraiek egingo dutenik. Horrenbestez, ikuskaritza kanpoko enpresa batek egitearen aukera planteatu da.

Hala, ikuskaritza ATEST kanpoko enpresak egitearen aukera planteatu da.

Osakidetzaren zuzendari nagusiak, **Susana López Altuna andreak**, esan du kanpo-auditoretza horrekin harremanetan jartzeko aukera dagoela ikuskaritza egin dezaten.

Ez dago beste eztabaidagairik eta, hortaz, bilera amaitu da, 2025eko otsailaren 11ko 13:00etan.



Izpta.: **Maiteder Mielgo Rubio**
Idazkaria



Izpta.: **Alberto Martínez Ruiz**
Presidentea
Osasuneko Sailburua
O.E.

2. ERANSKINA

ORGANIZACIÓN DE SERVICIOS DE OSAKIDETZA	TOTAL		A1 Facultativos Med. Y Tec.		A2 Técnicos Superiores		B1 Diplomados Sanitarios		B2 Técnicos Medios		C1 Tec. Espec. Sanitarios		C2 Tec. Espec. Admón.		C3 Tec. Espec. Profesionales		D1 Tec. Aux. Sanitarios		D2 Tec. Aux. Admón.		D3 Tec. Aux. Profesionales		E1 Subalternos Operarios		PD Puestos Directivos			
	NOV	DIC	NOV	DIC	NOV	DIC	NOV	DIC	NOV	DIC	NOV	DIC	NOV	DIC	NOV	DIC	NOV	DIC	NOV	DIC	NOV	DIC	NOV	DIC	NOV	DIC	NOV	DIC
	ORGANIZACIÓN CENTRAL	883	880	114	113	307	306	98	97	12	12	11	11	94	94	39	39	22	22	147	147	19	19	20	20	4	4	4
EMERGENCIAS	353	353	100	100	5	5	114	114					15	15	3	3			61	61	54	54	1	1	2	2	2	2
OSI ARABA	4.513	4.513	1.083	1.083	38	38	1.415	1.415	25	25	208	208	56	56	63	63	672	672	441	441	58	58	454	454	6	6	6	6
RED SALUD MENTAL ARABA	422	422	67	67	5	5	96	96	15	15			19	19	2	2	145	145	5	5	10	10	58	58	5	5	5	5
OSI RIQUA ALAVESA	189	189	24	24	1	1	61	61	2	2	3	3			8	8	29	29	22	22	5	5	34	34	2	2	2	2
O.S.I. DEBAGOENA	606	606	184	184	9	9	193	193	1	1	22	22	7	7	7	7	70	70	66	66	7	7	40	40	5	5	5	5
O.S.I. TOLOSALDEA	230	230	70	70	5	5	84	84	3	3	5	5	3	3	2	2	7	7	40	40			11	11	2	2	2	2
O.S.I. DONOSTIALDEA	5.432	5.433	1.307	1.308	55	55	1.785	1.785	21	21	285	285	118	118	44	44	794	794	452	452	75	75	496	496	6	6	6	6
O.S.I. BIDASOA	691	691	215	215	6	6	232	232	9	9	29	29	13	13	2	2	74	74	73	73	2	2	36	36	5	5	5	5
OSI GOIERRI-UROLA GARAIA	941	941	262	262	8	8	335	335	5	5	33	33	11	11	6	6	114	114	91	91	15	15	61	61	5	5	5	5
O.S.I. DEBARRENA	962	962	235	235	14	14	318	318	5	5	38	38	13	13	9	9	152	152	91	91	7	7	80	80	5	5	5	5
RED SALUD MENTAL GIPUZKOA	188	188	93	93	4	4	48	48	16	16			2	2	2	2			23	23					2	2	2	2
O.S.I. URIBE	1.562	1.562	435	435	11	11	487	487	2	2	54	54	11	11	7	7	196	196	190	190	15	15	154	154	5	5	5	5
C.VASCO TRANSF. Y TEJ. HUMANOS	130	130	31	31			34	34			43	43	6	6					3	3	13	13			2	2	2	2
RED SALUD MENTAL BIZKAIA	989	990	233	233	15	16	181	181	47	47			17	17	18	18	266	266	74	74	20	20	118	118	5	5	5	5
HOSP. SANTA MARINA	477	477	62	62	7	7	130	130	3	3	8	8	13	13	7	7	122	122	17	17	7	7	101	101	5	5	5	5
HOSP. GORLIZ	340	340	33	33	7	7	108	108	3	3	2	2	3	3	4	4	99	99	18	18	6	6	57	57	5	5	5	5
O.S.I. BILBAO-BASURTO	4.444	4.444	1.150	1.150	45	45	1.445	1.445	17	17	197	197	77	77	15	15	628	628	394	394	54	54	422	422	6	6	6	6
O.S.I. BARRUALDE-GALDAKAO	3.081	3.081	888	888	30	30	1.003	1.003	13	13	136	136	40	40	17	17	333	333	304	304	48	48	269	269	6	6	6	6
O.S.I. BARAKALDO-SESTAO	1.034	1.035	274	274	14	14	361	362	2	2	41	41	8	8	3	3	126	126	129	129	13	13	63	63	5	5	5	5
O.S.I. EZKER-ENKARTI-CRUCES	4.975	4.975	1.239	1.239	65	65	1.629	1.629	24	24	287	287	58	58	27	27	830	830	401	401	57	57	358	358	6	6	6	6
SUBTOTAL	32.442	32.442	8.099	8.099	651	651	10.157	10.157	225	225	1.402	1.402	584	584	285	285	4.679	4.679	3.042	3.042	485	485	2.833	2.833	94	94	94	94
TOTAL (Incluido Personal Directivo)	32.536	32.536	8.099	8.099	651	651	10.157	10.157	225	225	1.402	1.402	584	584	285	285	4.679	4.679	3.042	3.042	485	485	2.833	2.833	94	94	94	94
MAXIMO DE EFECTIVOS *	32.442	32.442	8.099	8.099	651	651	10.157	10.157	225	225	1.402	1.402	584	584	285	285	4.679	4.679	3.042	3.042	485	485	2.833	2.833	94	94	94	94

* Según Acuerdo adoptado por el Consejo de Gobierno, en sesión celebrada el 22 de febrero de 2024, se aprueba el Acuerdo por el que se modifican los límites máximos de efectivos estructurales de personal por grupos profesionales, con que puede contar el Ente Público Osakidetza-Servicio vasco de salud.